

DIRU-SARRERAK

Enpresa gehienek **helburu nagusia dirua lortzea** da, baina **Eskutik enpresaren kasuan**, gure **helburu nagusia** ez da hori. Gure **helburua**, **aniztasun funtzionala duten haurren** eta haien **familiengaztearen sustatzea** da, haien **gaitasunak garatzen** eta **beharrei erantzuten** lagunduz. Horregatik, gure **jardueren** eta **zerbitzuen prezioa** ez da altua izango, **guztionez eskuragarri egotea** baita gure lehentasuna. Hala ere, **proiektuaren kostuak estaltzeko** eta **egonkortasuna bermatzeko**, **diru-iturriak** behar ditugu.



Horrenbestez, gure diru-iturriak bi bidetatik etorriko dira. Lehenik eta behin, **erakunde publikoetatik eta pribatuetatik**. Udalek, hezkuntza-zentroek (publikoek zein kontzertatuak) eta osasun-zerbitzuak (publikoek zein pribatuak) gure zerbitzuak eskaini nahi izango dituzte beraien komunitatearen ongizatea bermatzeko. Zerbitzu horiek haiek finantzatzeko dituzte, eta uste dugu hemendik etorriko direla gure diru-iturri nagusienak. Horretarako, **hiru hilabeterik behin erakundeekin bilerak egingo ditugu jarduerak eta aurrekontuak adosteko**. Gainera, eguraldiaren eta beharren arabera jarduerak antolatuko ditugu, erakundeen aurrekontura egokituz.

Bestetik, **pertsona indibidualek eta familiekin** ere gure zerbitzuak zuzenean kontratatu ahal izango dituzte eta gure zentruan zerbitzu horiek eskuratzeko aukera izango dute. Zerbitzuen tarifak aldagarriak izango dira, adin-tartearen, jardueraren iraupenaren eta taldearen tamainaren arabera.

Hileroko edo urteroko harpidetza eskaintzea aurreikusten dugu, non familiekin eta laguntzaileekin kuota finko bat ordainduta abantailak jasoko dituzten, hala nola, eksklusibitate zerbitzuak eta deskontuak. Horrela, diru sarrera iraunkorrak lortuko ditu elkarrekin.

Donazioak bideratzea lan karitatiborako, adibidez, terapia-zerbitzuak finantzatzeko, behar handiena duten familiei laguntzeko, edo baliabideak erosteko. Kanpainak sare sozialetan eta webgunean zabaltzea garrantzitsua izango da.

Produktu edo esperientzia erakargarriak zozketatuko ditugu tokiko negozioekin lankidetzan, sarrera-txartelak salduta. Parte-hartzaileekin sariak irabazteko aukera izango dute, eta lortutako dirua elkarrekin jarduerak eta zerbitzuak finantzatzeko erabiliko da.

Horrela, diru-sarrerak etengabeak eta aldakorak izango dira, eta gure proiektuaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren baliabideak eskuratzeko ditugu. Gure zentruan horrelako zerbitzuak eskainiko ditugu eta horrelako prezioak izango dituzte:

Zerbitzua	Deskribapena	Prezioa (€)
Indibidualizatutako Terapia Saioak(Superbotereen Kluba)	Terapeutekin banakako saioak (psikologia, logopedia, fisioterapia). 1 orduko saio bakoitzeko.	40 €/saioko
Taldeko Terapia eta Tailerrak(Superbotereen Kluba)	Talde dinamikak eta tailerrak (sozializazioa, garapen motorra eta kognitiboa). 1 orduko saioa.	20 €/parte-hartzaileko
Gurasoen Aholkularitza	Familiantzako orientazio eta laguntza-saioak (banakako edo taldeko formatuan).Ordu bateko saioa.	40 €/saioko
Jarduera Inklusiboak eta Kanpoko Ekintzak	Haurrentzako eta familiantzako antolatutako jarduerak (irteerak, aisialdiko tailerrak). Jarduera bakoitzeko.	30 €/parte-hartzaileko
Garapen Ebaluazio Integrala	Garapen Ebaluazio Integrala zerbitzua haur baten behar eta gaitasun espezifikoak ebaluatzeko eta ulertzeko prozesu sakona da. Zerbitzu hau diagnostiko profesional eta zehatza eskaintzera bideratuta dago, haur bakoitzaren garapenean laguntzeko oinarri gisa erabiliko den txosten pertsonalizatua sortuz.	100€/txostoneko
Hautzaroko Eskola-Laguntza Zerbitzua	Aniztasun funtzionala duten haurrentzat laguntza espezifikoa eskolako lanean. Ordubeteko saioa.	30 €/orduko

Zerbitzu bakoitza haurren eta familien behar espezifikoetarako egokituko da, zerbitzuen pertsonalizazioa bermatuz. Prezio hobeak eskaintzeko, zerbitzu ugariko paketeak edo maiztasun handiko erabiltzaileentzako deskontuak aztertu daitezke. Adibidez: Terapia Bona (10 saio = 150 €, banakako saioetarako deskontua) edo Jarduera Paketea (5 jarduera = 80 €). Bestalde, prezioak murriztu daitezke diru-laguntzen edo babesleen laguntzarekin. Hau hasierako proposamen bat da, eta beharren, erabiltzaileen iritzia edo lehiaren azterketaren arabera egokitu daiteke.

Gainera, Superbotereen Kluba Bono Integrala eskuratzeko aukera izango dute, hilean 260€-tan eskuragarri izango dute, eta balio guztia aurrezten duzu zerbitzuen prezio indibidualekin alderatuta. Bono honek barruan biltzen ditu: **2 indibidualizatutako terapia saio, 3 taldeko terapia eta tailer, 1 gurasoen aholkularitza saio, 1 jarduera inklusibo edo kanpoko ekintza, garapen ebaluazio integrala urtean behin, eta 2 eskola-laguntza saio.**

Zerbitzu hauek guztiak bateratuta, haur eta familien ongizate integrala sustatzen da, esperientzia osoa eta pertsonalizatua eskaintzeko. Sarrerako opari bezala, 160€ gatik izango da lehenengo hilabetea, (Ebaluazio Inetgral txostena dohainik izango da)

Eskutik proiektua martxan jartzeko, taldeko kide bakoitzak 1.000 euroko inbertsioa egingo genuke, guztira 4.000 euro bilduz (hasierako kapital soziala). Kopuru hori gure **finantzaketa oinarri izango litzateke**, hasierako kostuei eta proiektuaren martxan jartzeko beharrezko baliabideei aurre egiteko. **Hasierako ekarpen horri esker, instalazioen egokitzapena, materiala eta lehen jarduerak abian jartzeko gastuak estaliko ditugu.**

Horretaz gain, **finantzaketa osatzeko, diru laguntza ezberdinak eskatzea aurreikusten dugu.** Laguntza hauek **Bizkaiko Foru Aldunditik, udaletxe ezberdinetatik eta beste erakunde batzuetatik** etorri litezke, gure proiektua tokiko eta eskualdeko intereseko ekimen gisa aurkeztuz. **Babesle eta enpresa laguntzaileak bilatzeko aukera ere aztertuko genuke**, gure zerbitzuen eragina zabaltzeko eta baliabide gehiago eskuratzeko. **Helburua da finantziario iturri anitzekin gure proiektua modu egon eta iraunkorrean garatzea.**

